

ARGI DONE LABURÁ



A.T.V
692

10.



ARGI DONE LABURÁ

ARGIA'REN ELIZ-LIBURUTXOA



Utzi umcai neregana etortzen

N. - 4188

A.T.V.
692

A - 700

ARGIA'ren IDAZTIA



ARGI DONE LABURA

BIGAÑEN ARGITALDIA



BILBAO
VERDES-ATXIRIKA TAÑ E'REN

Irarkolan

CORREO-9'gn. eta CRUZ-5'gnean.

1934

NIHIL OBSTAT
EMMANUEL DE LECUONA
Censor.

IMPRIMATUR
Victoriae, die 16 iunii 1933
MATTHAEUS
EPISCOPUS VICTORIENSIS

AURÉ-ITZA

Aur maitea:

Liburu beñiren bat eskutaratzen zaizunean, lenbizi egingo dezuna, aúrenetik azkeneraño dakartzkin santuen irudiak banan-banan begiztatzea izango da, noski. Ume guziena da ori. Baña liburuko ikasgai osasungaríak geldi-geldi irakuñi ta irakurtzen jardutea, a! ori aúrei gogaikañi egin oi zaizute.

Bazeneki nolako ontasun aundiak arkitu zenitzazken liburu on batean! Liburu on bat irakuñi zuelako santu egin zan Loyola'ko Iñazio. ¡Nork daki, ume, zure santutasunaren azia ere, eskuetan daukazun liburutxo onetan ez ote-dagon? Aurtxo txikia ziñanean, orduan bai, aingerua ziñan; gaur, ordea, aingerutasuna gal-

du ez ba-dezu ere, galtzeko arixku aundian ikusten zaitut.

Iñoiz ixpilū baten auŕean egon izan ba-zera, antxe ikusiko zenduan zure arpegia, ez da ala? Olaxen begiratzan dio Jaungoikoak zure animari; ta zure anima oŕetan, ixpilū baten auŕean bezela, bere irudi edeŕa ikusten du. Baña begira: aoko luŕiñaren ikutua naikua da, ixpiluari edertasuna, osoro kentzen ezbadio ere, beintzat lausotua ta ilundua uzteko. Bada, munduak, deabruak eta jatoŕizko griña biguŕiak ematen duten kiratsak ere zure anima edeŕa lausoturik utzi lezake, joso il-ta uzten ez badu!... *Liriuak* zimuŕtzeko, xomoŕo baten ikutua naikua da. Alaxen bada, auŕaren anima ere etsaiaren pozoi txarāk kutsatu-ta, zimeldu ta igarturik gelditu diteke.

Oŕegatik, eta zu zeruan ikusteko gogo bizi-bizia daukagulako, argi-

taratu degu aurtxoentzat guziz egokia dan liburutxo au.

ARGI DONE LABUÑA'k izan bear du, zoazen toki guzietara jañaituko dizun lagun zintzo ta bide-ebale ona. Eskuetan artu ta irakuñi ezazu maiz. Galde zaiozu zerurako bidea nondik dan, ta, eskutik artuta bezelaxe, berealaxe eramango zaitu ara. Aitorketa edo Konfesiua egitera zoazenean, nondik asi ta non bukatu ez dakizula, pekatuak nola esan eziñ asmaturik buru-naste aundiak ba-darabiltzkizu, ez estutu, ARGI DONE LABUÑA'k zer egin erakutsiko dizu-ta. Aurtxo ona izateko, aingeruen antzera bizi izateko, zeru edeña irabazteko, zer egin bear dezun jakin nai dezu? Artu eskuetan ARGI DONE LABUÑA, galde, galde berari gauz asko, ta ikusiko dezu ezariz-ezariz zenbatxo gauza ikasiko dituzun.

Mutiltxua ba-zera, egun edo bigar

lege-gizon argia, sendalari yayua, etxegile egokia, arotz, argiñ, nekazari azkaía izatera iritxi ziñezke; baña jakintza ori guzia lur-gañean asi ta lurpean bukatzen da. Nexka ba-zera, izan ziñezke, bear bada, izen aundiko irakaslaria, sukaldari txukuna, esku egokiko jostuna, zernaitarako trebea; baña jakintza oiek guziak, besterik gabe, etzaitute zeruan sartuko. Mundu guziaren jabe egin-ta ere, zer dezu beiñ il ezkerro? Jakintsu guziak baño jakintsuago izan arien, zenbat jakingo dezu, aarak eta xomoñuak zure buru-ezura beren zi-lekutzat artzen dutenian? Aundizki guziak baño ere aundizkiago ba-zera, bein lurperatu ezkerro, zer zera besteak baño geiago? Jakintza guzien artean guretzako aurenekoa, zerutik datoñena ta gu zeruratuko gaituana da. Jakintza ori, bada, **ARGI DONE LAB URA'** emango dizu.

Guzien eskuetara zabaldu dedin, merke, oso merke jaíri degu; ta egin-kizun onetan, sinis zaiguzu, zure animaren ona beste irabazpiderik ez degu nai.

Jaunartze ospatsua egin bear dezun egunean, soñeko beíri ta besoko biribista edo lazo edeíakin, egun aundi oíri dagokion bezela, Elizara zoazenean ¿eskuan liburu eder batek ez al lizuke ongi emango? Bai, noski. Bada, egun artarako ere atera degu azal edeíeko eskuliburu guziz apaña. Onela, azala ta mamia, biak, izango ditu onak.

Ez mutiltxorik ta ez nexkatxorik, ez bedi liburu au gabe gelditu. Aur batek izan litzazkean lagunik one-nak, zintzoenak, eta ongíleenak aue-txek biak dira: Kristau-ikasbidea ta **ARGI DONE LABUÑA.**

ARGIA'K



Aur on baten bizi-bidea

EGUNERO

1. – Jeiki ta bereala «Gurutze santuaren» urbedeinkatuarekin egin ondoren, egin itzatzu beti goizeko eskeintza ta eguneroko otoitzak.

2. – Al ba-dezu, entzun egunero Meza.

3. – Alegindu zaite ikastolako jakin-beařak ikasten.

4. – Jatorduetan ez eraman aora ezertxo, auřetik otoitz egin gabe; eta jan ondorean eman Jaunari eskeřak.

5. – Jolastu bear dezunean, jolastu zaite, baņa mutilak mutilakin eta nexkak nexkakin.

6. – Aldegin lagun gaiztoetatik.

7. – Igaro zazu eguna Jainkoari pekatuarekin naigaberik eman gabe.

8. – Gauean etxeko guziak bildurik, esan Eřosarioa. Oitura on au zure etxean galdu ba-da, sortu zazu zuk zerořek beřiro.

9. — Ez beñere oyera joan utsegite ta pekatuen barkamena Jaungoikoari, «Jesukristo nere Jauna» esanaz, biotzez eskatu gabe.

A S T E R O

1. — Igande ta jai-egunetan Meza osoa entzutera beartua zaude. Baña ez entzun nolana, baztañetara begira ta aldameneko lagunakin izketan.

2. — Igande ta jai-egunetan zoaz Meza Nagusi ta Bezperetara, eta ikasi ta kantatu itzazu eliz-abestiak.

3. — Larunbatean aitorketa egitea ta jai-egunetan jaunartzea guztiz on litzaizuke.

4. — Eñiko Elizan igandetan dotriñ-erakusketarik baldin badago, zoaz zintzo alperkeriz gelditu gabe.

I Ì L E R O

1. — Astero ez bada, ìlero beintzat aitortu itzatzu zure pekatuak ta jaunartu ezazu, auñetik ongi gertu-ta.

2. — Ilaren lenbiziko ostiraletan, toki askotan oi dan bezela, zuen eñian ere ume guztiak jaunartze ospatsu edo *komunio jeneralà* egiteko oitura ba-da, izan zaite zu aietako bat.



OTOITZA

Gure indar utsez, Jaungoikoaren laguntza gabe, ezin genezake gauz onik ezertxore egin. Pekatu lañi edo ilkoñan iltzen dana, eziñ zeruratu diteke; nai-ta-naiez infernura amilduko da. Pekatuan ez erortzeko Jaungoikoaren laguntza bear da. Jaungoikoaren laguntza, eskatzen duenak artuko du.

Jaungoikoari zor zaion agurtza emateko ere, beárezkoa degu otoitza. Beárezkoa degu, gañera, bide zuzenean beti irauteko ere.

Otoitz egin bear diogu, Jaungoikoaz gañera, zeruko Ama erukioñari ere, ta etxeko gora-beretan ta eriotz-garaian laguntzale ona dan Jose santuari, eta nork bere izeneko Santu ta Aingeru Zaindariari.

GOIZEKO OTOITZAK

GURUTZE santuaren ✠ señaleagatik
gure ✠ etsaiengandik zaitu gaitzatzu
✠ gure Jaun eta Jaungoikoa.

Aitaren eta Semearen ✠ eta Espi-
ritu Santuaren izenean. Alaxen.

(100 eguneko barkamenak, ur bedeinkatuaz egin-ta).

Gero esazu;

NERE Jaungoiko maitea: kristau onari
dagokion bezela bizi nai det gaur;
baña zu gabe ezer eziñ nezaken ez-
kero, lagun zaidazu, Jauna.

*Sinispén itxaropen-eta maitasun-
-egintzak:*

«Egi utsa zera, Jauna. Zugan sinis-
ten det».

«Sinisgaría, ta, agindutakoa bete-

tzen zintzoa zera, Jauna. Zugan daukat itxaropena»,

«On-ona zera, Jauna. Maite zaitut».

(7 urte ta 7 berogeiko barkapenak esan bakoitzean).

Eguneroko eskeintza

JESUS'en Biotz Jaungoikozkoa! Mariaren biotz garbi-garbiaren bitartez eskeintzen dizkitzut gaurko nere otoitz, lan eta nekemiñak; izan bitez guztiok, guk Zuri egiten daizkitzugin txarkerien ordezt eta Zuk zure burua aldarean eskeñiaz, iritxi nai zenituzkean on guztietarako.

Aita gurea

AITA gurea, zeruetan zaudena: santifikatua izan bedi zure izena; betor gugana zure éreinua; egin bedi zure borondatea zeruan bezela luéan ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia; eta barka zazkiguzu gure zoñak, guk geren zordunai barkatzen diegun be-

zela; ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen, baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Alaxe.

Agur Maria

Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zurekin; bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama: éregutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzako orduan. Alaxe.

Aintza Aitari

Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Alaxen.

Lateraz:

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

Kredoa

SINISTEN det Jaingoiko Aita alguztidun, zeru-luñen egilea; ta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna: Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birjiñagandik jaio zana; Pontzio Pilato'ren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ila ta obiratua izan zana; inpernuetara jetxi ta irugañen egunean ilen artetik piztu zana; zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldetik eseririk dagona; andik biziak eta ilak epaitzera etoriko dana. Sinisten det Espiritu Santua; Eliza Santu, Katolikua; Santuen alkartasuna; pekatuen barkamena; aragiaren piztuera; betiko bizitza. Alaxe.

Salbea

AGUR, Eregiña, Ama Erukioña: gure bizi, gozo ta itxaropena, agur! Zure deiez gaude Eba'ren ume erbeste-

tuok: zuri aiezka, antsiz ta negáez negar-erí onetan. Ea bada, itzuli itzazu gure bitarteko on oírek, itzuli gugana zure begi erúkitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zai-guzu Jesus, zure sabeleko Seme be-deinkatu ori. O Biozpera! O erúkior! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done oírek, Jesukristo gure Jaunaren agin-duak irabaz ditzagun. Alaxe.

Andre Mariari

NERE Ama ta Jabea: oroitu zaitez zurea naizela; eta zaitu ta begiratu nazazu zure gauza ta ondasuna bezela.

Jose Doatsuari

JOSE doatsua, nere zaindari eztitsu, maitea: lagun zaidazu.

Norbere izeneko Santuari

NERE izeneko Santua: Eskatu ezaiozu Jaunari neretzat, kristau-eginbear guztiak ondo bete ditzadan.

Aingeru Zaindariari

SORTU nintzanetik Jaunak neri laguntzat emandako Aingeru Santua: argitu, zaitu ta lagundu nazazu. Alaxen.

NEXKA-MUTIKOEN

GOGO-OTOITZA

NEXKA edo mutikoa, zerana zerala, ona izan bear dezu. Eta oretarako bai al-dakizu zer egin bear dezun? Egunero-egunero gauza onak gogoratu ta ausnartu.

Begira nola. Gogoratu Jaungoikoarena zerala ta Berak nai duana egin bear dezula. Gaurko eguna zure anima geyago ontzeko eman dizu. Oregatik gaurko eguna txintxo-txintxo igarotzeko asmo sendoa artu bear dezu. Ikusi beste egunetan zer

oben edo pekatu egiten dezun. Nun? Norekin? Nola? Alde egin gaur oben egiteko bide oietatik. Zer oben egiten dezu geyena? *Artu gaur oben ori ez egiteko asmoa.* Gogoratu gauza auek eta egon ixil-ixilik zure bañenari begira.

Gero esan otoitz txiki au:

Nere Jaungoikoa! Zure begiak dan guztia ikusten dute, baita nere biotz-bañena ere. Zuk ba'dakizkitzu nere asmo onak. Nik ona izan nai det. Lagun zadazu Zuk, zure Seme Jesukristo'ren irabazkiagatik, eta Amagarbi-garb Maria ta Joseba Donea ta nere izeneko Deuna ta nere Aingeru Zaitzalea bitarteko ditudala. Alaxe.

Aingeru otoitza

ANGELUS Domini
nuntiavit Mariæ.

R. Et concepit de
Spiritu Sancto.

Ave Maria...

V. Ecce ancilla Do-
mini.

R. Fiat mihi secun-
dum verbum tuum.

Ave Maria...

V. Et Verbum caro
factum est.

R. Et habitavit in
nobis.

Ave Maria...

V. Ora pro nobis
Sancta Dei Genitrix.

R. Ut digni efficia-
mur promissionibus
Christi.

JAUNAREN aingeruak
Maria'ri adirazi zion.

R. Eta Espiritu San-
tuaren egitez sortu
zuan. *Agur, Maria...*

V. Ona emen ni Jau-
naren mirabea.

R. Egin bekit zuk
diozun bezela.

Agur, Maria...

V. Eta Jaungoiko-Se-
mea gizon egin zan.

R. Eta gure artean
bizi izan zan.

Agur, Maria...

V. Otoitz egizu gure
alde Jaungoikoaren
Ama done orek.

R. Jesukristo gure
Jaunaren aginduak
irabaz ditzagun.

Oremus

Gratiam tuam quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntian'te, Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus et crucem, ad resurrectionis gloriam perducamur.

Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Otoitza

Ixuri ezazu, a'én, Jauna, gure biotzetan zure grazia, zure Seme Jesukristoren Gizakundea, Aingeruaren esanaz ezagutugenduanok, bere Nekaldi ta Eriotzaren bitartez, aintzazko Piztuerara eldu gaitezen; gure Jaun Jesukristo bero'engatik. Alaxe.

«*Angelus*» buruz ez ba-dakizu, esan ezazu iru aldiz.

Zure Sortze garbiagatik garbitu ezazu, Andre Maria, nere gorputz eta anima.

Agur Maria...

JAN-AURE TA ONDORENGO OTOITZAK

Aureko:

«Aitaren...»

BEDEINKATU gaitzazu, Jauna, ta bedeinkatu orobat zure eskutik artzen ditugun jateko auek ere. Olaxen.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

ZERUKO érege aundiak, ango maiean artu gaitzala. Olaxen.

Ondorengo:

«Aitaren...»

ESKEÑAK Zuri, zure mesede guztiakatik, gizaldi ta gizaldietan agintari bizi zeran Jaungoiko Guzialduna. Olaxen.

Aita gurea.,.

Jaungoikoak eman dizaigula bere pakea.

Baita betiko bizitza ere. Olaxen.

EGUN - ARTEKO OTOITZ

LABURAK

ONETSIA (bedeinkatua) izan bedi
Jaungoikoa.

(50 eguneko barkamenak).

JESUS, Maria, Jose.

(7 urte ta 7 berogeiko barkamenak).

Lana asteko

JAUNA, eskeintzen dizut lan au; one-
tsi (bedeinkatu) zazu, a'ren.

Ziltzaldian (tentazioan)

ANDRE Maria, nere Ama: zure itzal-
pera nator, etsaia ni galdu nairik
dabil-ta.

ARATSEKO OTOITZAK

EMAIDAZU, Jesus maitea, gaurko nere utsegite guztiak ikusteko argia, biotzez goñotatu ditzadan.

Gaueroko azterketa laburra

Goizeko ta eguneroko otoitzak egin al ditut?

Elizan.—Meza ondo entzun al-det?—Meza entzuterik izan ez ba-det, Sagrarioan dagon Jesus'i ikustalditxo bat bederik egin al-diot?—Kristau-ikasbidean zintzo-zintzo egon al-naiz?

Etxean eta eskolan.—Guraso ta maisuen esanak egin al-ditut?—Kristau-ikasbide ta beste eskolako jakingaiak ikasten alegindu al naiz?—Zaputzean ibili al naiz? Gaizki erantzun al-diet?

Jolasean.—Lagun gaiztoakin ibili al naiz?—Gauza txarrik ikasi edo erakutsi al det?—Jaungoikoak ikustea nai ez nuken gauzarik egin al det?—Asarretu, edo inor jo al det?—Pensamentu, izkuntza edo asmo txarrik

izan al det?- Beste zer baitetan utsegin al det?

Oyeratu baño len utsegite guztien barkamena Jaungoikoari belaunikaturik biotz-biotzez eskatu esanaz:

JESUKRISTO nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egile ta salbatzaile ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, ta pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta oben-nekea betetzeko. Alaxe.

Gero iru «Agur Maria» goizean bezela.

(Oyea sartzen zeranean).

GAUA aingeruen egopean igaro zadalako, Jauna, indararak beritu-ta bigartik zu obeto maitatu ta zure aginduak zintzoago betetzeko.

JESUS Maria, Jose: nere biotz ta anima ematen dizkitzutet.



AITORTZA

Oben ariñak aitoítzea ez da beárezkoa, baña bai on aundikoa.

Pekatu aundi edo eriozkiña egin duanak, beste biderik ez dauka: edo aitortza edo betiko ondamena.

Apaizak barkatzen duana bakañik barkatua izango da zeruan.

Aitortza ongi egiteko bost gauza bear dira: 1.—Egindako txarkeriak eta egin gabe utzi diran aginduak gogora ekañi. 2.—Biotzeko damua sortu. 3.—Asmo beñi sendo bat artu. 4.—Obenak (pekatuak) aitortu. 5.—Oben nekea (penitentzia) bete.

Jaungoikoaren auñean belaunikaturik asiko zera:

*Gurutze santuaren... Aita gurea...
Agur Maria... Gloria...*

Atoz, Espiritu Santua; bete zure sinismendunen biotzak, eta piztu gugan zure maitetasunaren su bizia.

V. Zure Espiritua bidali, ta zuzenduko dira.

R. Ta lurbera osoa berituko dezu.

Otoitza

ZURE jaraitzaileen biotzak Espiritu Santuaren argiz ezi dituzun Jaun orek, emaguzu: Espiritu Santu beroren bidez ona dana beti maite izan dezagula ta bere pozez beti atsegindu gaitezela Jesukristo gure Jaunaren izenean. Alaxe.

¡Nere Jaungoiko maitea! emaidazu nere pekatu guztiak ezagutzeko argi bizia, ta oiek guztiak biotz-biotzez gorotatu ta aitortzeko indarra!

Andre Maria, Ama erukioa, Jose Doatsua, nere Aingeru zaitzailea: zuen

laguntza bear-bea'ekoa zait eta guztiok lagundu zaidazute aitorpen on bat egiten.

Aita gurea... Agur Maria... Gloria...

Orain zure ba'ua aztertu, ia zertan utsegin dezun.

Lenengo agindua: Jaungoikoa maitteen izatea.

Au'eko aitorketan bildu'az edo lotsaz pekatu aundiren bat aitortu gabe utz al zenduan?—Pekatu aundian beiñere jaunartu al dezu?—Egunoroko otoitzak egin?—Jaungoikoarenganako asa'erik izan?—Zuretzat barkapenik ez dagola etsi?

(Ez o'elakorik, ume: Kain o'egatik galdu zan, Judas ere bai. Biotzez damutzen ba-zera, Jesus onak, dituzun pekatu guztiak barkatuko dizkitzu).

Biga'eren agindua: Jaungoikoaren izena alpe'rik ez aotan artzea.

Itz zata'rik esaten al dezu? —Jaungoikoaren, Jesukristo'ren, edo Santuen izenik nolana ta begirapen edo lotsarik gabe min-

gañean erabili al dezu? (*Jaungoikoaren izena begirapenez esatea, ona da; nolanai aotan erabiltzea da txarra*).

Esaten dezuna obeto siñistarazitzeko, beatzak gurutz-irudian jarita muñ egin al diezu? — Gezuřetan ere bai? — «Emen eta Jaungoikoaren auřerako» edo «Jaungoikoa dan bezela» edo ořelako beste zerbait esan al dezu? (*Gezuřakin gauz oiek esatea, bi aldetara da pekatu: gezuřa esan dalako ta Jaungoikoaren izena aotan artzen dalako. Egiarekin ere ez dira nolanai esan bear. Oitu zaite, bada, bai edo ez, beti egia esatera, ta utzi alde batera beste esaera ta siñu oiek*).

Irugařen agindua: Jai-egunak jai egitea.

Igande ta Jaiegunetan Meza osoa entzun dezu? — Berandu iritxi al zera? — Elizan izketan, beriketn, bazteřetara begira egon? (*Al ba-dezu Meza Nagusi ta Bezperetara zoaz; eta Aita Santuaren gogoa betetzeko eliz-abestiak ikasi ta kantatu*).

Laugarren agindua: gurasoak aintzat eukitzea.

Gurasoei lotsagabekeririk egin diezu? – Aien esanak gogo txarez egin, edo egin gabe utzi? – «Erua», «txorua» edo orelako itz txarik esan? – Zapuztu edo muxindu al zera? – Kopet ilunaz begiratu diezu? – Senideekin asaretu edo joka ta zipoka ibili zera? – Oienganako ezin-ikusi edo bekaitzik bai al daukazu? – Kristau-ikasbidea ikastera zintzo joaten zera? – Eskolako gauzetan maisuaren esanetara egoten? – Jakin bearak ikasten alegindu zera? – Ate-ondora datozen eskalari, ta gizon edo emakume zarari iseka, kiñu edo ezpain-okertzerik egin diozu?

Bostgarren agindua: Iñor ez iltzea.

Gorputzean:

Narbait jo, borokatu edo aramaskatu dezu? – Ari tiraka jardun? – Eriotza, gaitza, erori ta miñ artzea, iñori opa izan diozu? – Eziñ-ikusia, inbiria, gorotua, aserea izan?

Animan:

Iñori pekatuako biderik eman diozu? – Gauza txarik iñori erakutsi? – Ta, oraindik

okeágo dana, gatzetxoren bati? — Pekatu egiten iñori lagundu? — Norbaitentzat gaizki esaka edo iñoren utsegiteak besteri kontari ari izan zera?

Seigarañen agindua: Aragikeririk ez egitea.

Gogapen edo pensamentu txarañak etoñi bazaizkitzu, beriala kendu al dituzu? — Izkuntza txarañetan ari izan al zera? — Begiratzete itxusiak izan dituzu? — Bakañik ala besterekin? — Nolako lagunakin jolasten zera? — Dantza nastu ta zinietara joaten al zera? — Oieratzekoan edo oietik jeikitzean lotsarik gabe jantzi edo erantzi zera? (*Jaungoikoak toki guztietan ikusten zaitu gero...*)

Zazpigararen agindua: Ez ostutzea.

Zerbait ostu al dezu? — Ostutzeko asmorik izan al dezu? — Iñori asmo txarañez kalterik egin al diozu? — Zurea ez dan gauzik bai al daukazu zerekin, jabeak jakin gabe edo jabeak nai ez duela? (*Jabea nor dan jakin ezkerro, bilatutako gauza jabeari eman bear zaio. Jabea nor dan ez bada-*

kizu, nor izan ote-leiken jakiten alegindu zaite).

Zortzigarren agindua: Gezuzezko testigutzarik ez egin eta gezuirik ez esatea.

Txantxetan bederik gezuirik esan al dezu? — Inoren kaltez? — Maxiatzen, eta ixilkaiak zabaltzen jardun al dezu? — Erezegi inor gaiztotzat euki al dezu?

Bederatzigarren ta amargarren aginduak seigarrenean eta zazpigarrenean sartzen dira.

Begira, ume: pekatuak burura ekartzea gauza bat da, baina pekatuak burura ekartze utsaz ez dezu ezer auferatzen. Pekatuarekin Jaungoikoa mindu dezulako biotzean damua artu bear dezu, gañera; ta pekatu guztiak gorotatu. ; Ortantxe bai jañi bear dezula ardura aundia! Egindako pekatu guztiak bururatzen ez ba-zaizkitzu-ere, ondo aitortu zindezke; baina damurik gabe ez zaizu pekaturik barkatuko; damurik gabe, aitortzako sakramentua alpeñikakoa

izango litzake. Damua bear beárezkoa da, bada, aitortza ona izango ba-da.

Biotzeko damua artzen laguntzeko, irakuñi itzatzu astiro-astiro emen jartzen diran oarkai auek:

Bildur-damua

PEKATU egin det eta askotan egin gañera... ¿Noren aurka egin det pekatu? Jaungoikoaren aurka. Jaungoikoa naigabetu det... Beraz Jaungoiko aundia mindu dedalako nere gaiztakeria aundia da; beraz nere pekatuen gaiztakeriari dagokion neuriko zigorkada merezi det.

(Ondoren letra txikitan jartzen dana, beta dezunean edo noizean bein irakuñi ezazu).

Pekatua, barka-eraza edo txikia deitu aren, berez ez da txikia; aundia da; Jaungoiko aundia mintzen bait-du. Ugelde bateg Noe ta bere sendia ez beste gañerako gizon eta emakume guztiak ondatu zituan:

aundia izan zan kalte ura; baño aundigoa da pekatu txiki baten kaltea; pekatuak Jaungoiko aundia mintzen bait-du. Zerutik jetxitako suak ére ta kiskali zituen Sodoma-aldeko bost éri aundi: aundia izan zan ango kaltea ere; baña aundigoa da pekatu txikia-rena. Ez da gertatuko, baña esate baterako, zeruko Aingeru ta Santuak infernura amilduko balira, aundia izango litzake kaltea; baña kalte aundigoa da pekatua. Inpernu-ko deabruak eta anima galduak zerura eramateáren ere ez liteke pekatu txiki bat bakańik egin pekatua beti Jaungoiko aundiaren aurka bait-dijoa. ¡Eta nik zeńen érez pekatu egiten dedan!... Pekatu txikiagatik Garbitokiko ońazetan egon beárean naiz; eta pekatu astuna edo eriozkińa egin ba-det, beńiz, betiko inpernua merezidet. ¡O Garbitoki iluna! ¡O inpernu ikaragarńia! ¡O beti-betiko betikotasuna!

Oben lańi eriozkińa egin badet, edo ińoiz egin izan badet edo egiteko zoritxańa izaten ba det eta orla il, ¡ze zoritxar negargarńia etońiko dan nere gańera! . . . Oben astunak itxitzen ditu zeruko ateak, eta ez

dira irikitzen damuzko aitortza on baten bidez ez bada... Munduko aita ta ama, gorputzaren osasuna ta luéko ontasun guztiak betiko galtzeak alako samintasun aundiz biotza erdibitzen ba-du: ¡nolako naigabea ez da izango zeruko Aita, Ama Birjiña, Aingeru ta Santu doatsuen lagun-arteá betiko galdu beára!... nolako eziñ-etsia Jaungoikoaren arpegi edeára ikusi gabe beti egon beára!... Aita ona dan Jaungoikoa asaré daukat, eta inpernuko deabrua adiskide... ¡Ene, zer egin det! Jaungoikoak bere eskutik uzten ba-nau, ¿nora joango naiz? ¡¡Betiko inpernura!!

¡¡Inpernura!! Eta inpernuan zer dago? Sua, betiko sua... Poxpolo baten su-gaéretan beatza jaírta, ez nitzake luzaro egongo oñazearen oñazez lertu gabe... ¿Sutan goritutako burniari eskuz elduko banio?... gogoratze utsak gorputz guztia ikaraz *dardar* jartzen dit... Eta suzko labe piztu batean sartu ta goritzen egon naiko det?... Eta zenbat denboran? ¡¡Beti!! ¡¡beti!! ¡¡beti!!

Beti, bai, beti: Jaungoikoa Jaungoiko izango dan arte: beti. Inpernuan dagon

animak mila urtetik mila urtera negar mal-ko bat ixuriko balu ¿zenbat urte, zenbat milaka urte bearko lituzke sula bat negar-malkoz betetzeko? ¿Zenbat, itsasoa bete-
tzeko?... Mila urtetik mila urtera aingeru bat zerutik jetxi ta aldi bakoitzean ondar-
-ale bat bakaía artu ta eramango balu ¿noizko aitu itxasoko ondartzak?... Eta bi-
tarteetan inpernua bukatuko ote-litzake? Ez, ezer igaro ez balitz bezelaxe egongo litza-
ke... Eta pekatuak oírelako zigorkada go-
goía merezi al du? Pekatu laía edo astuna baldin bada, bai; pekatu txiki edo ariña baldin bada ez; baña mundu onetan edo Garbitokiko oñazeetan nunbait ordaindu bearko ditugu txikiak ere.

*(Inpernuaren oarkai auek pekatu laían erori diran animentzat jaíi dira. Baña zuk, Jaunari eskeiak, oírelako zoritxaíik izan ez ba-
dezu ere, on izango dezu oarkai oek zure baíu-
-baíuan sartzea, pekatu laían erori etzaitezen. Gañera, pekatu txikien damua artzen asko lagunduko dizute. Bestela beintzat, len esan zaizun bezela, damu gabe aitortza egitea, al-
peíikako lana zenduke).*

¡O Jauna! ¡zeñen gaizki egin dedan!...
Zuzena zera zere erabakietan eta ez dezu
iñor, merezi baño geiago zigortzen. Peka-
tuak oñelako zigorkada eskatzen badu, nai-
tanaiez pekatua gaiztakeri itsusia da, érez
asko egiten ba-da ere. Barkatu, Jauna, bar-
katu, emendik auñera ona izango naiz-ta.

Maite damua

ETA ¿nor naigabetu det? Nere Aita,
nere Egilea, nere Eroslea, nere Jaun
eta Jabea, nere Jaungoiko on-ona
naigabetu det. ¿Nor da Jaungoikoa,
ta nor naiz ni, Jaungoikoaren agin-
duak, autsi ditudan bezela, austeko?
Jaungoikoa dan bezelakoa izanik,
menpetasuna, zintzotasuna ta maita-
suna zor nizekion nik Berari, eta Jaun-
goiko onen auñean oñelako gaiztake-
riak egiteko ausardia izan det. . Jesus,
jayo orduko, otzak negañez dago, ta
ni apaiñ-zaletasun geiegiz txoro bat
egiñik... Jesus, Ama Birgiñaren eta

Jose Deunaren aginduak zintzo egiten, eta ni nere gurasoen eta Jaungoikoaren aginduak egin nai-ezik... Jesus odolezko izerdia ixurtzeraño neretzat otoitz egiten, eta ni egunoroko ototzetan onen zabañ... Jesus arantzazko koroia buruan duela, ta ni olako aundiusteak buruan ditudala... Jesus nigatik zigortua, Jesus nigatik gurtzean ila, eta ni beñero pekatuarekin Jesus'i zauriak irikitzen... Jesus aldareko Ostian neri bere burua jaten ematen, eta nik ordañez Jesus'i one-lako eskergabekeriak. Zer egin zezakean Jesusek neretzat egin duan baño geiago, ta zer egin nezake nik gauza txaragorik egin dedan obena baño?

¡O zoritxañeko pekatua! ¡ai beñere obenik egin ez banu! Orain ezagutzen det zeñen gaizki erantzun didan Jaungoikoak didan maitasunari. Baña asko da: Jaungoikoa nere Aita

da. Ba'dakit damu duanik iñortxore ez duela beregandik aldentzen; badakit besarkatuko naua ta biotzaren ba'ruan sartuko naua.

(Ondorengo otoitzak beta dezu-nean esateko jartzen dira).

Nere Jesus maitea: umetxoekin eta pekatariekin on-ona izan zinan. Begira: ni ere umetxo bat naiz, pekatari bat naiz; nerekin ere izan zaite on-ona. Barkatu, Jauna.

Dauzkadan gauza guztiak: anima bere adimen ta naimenarekin, gorputza bere zentzun guziekin, danak zuk emanak ditut. Alaz ere zuri esker onak eman bea'ean, zure eskutik artutako ontasun oiekin beraikin naigabetu egin zaitut nik Zu. Barka zaidazu, Jauna.

Jesus Au'ra: seaskatik ere zuk maite izan ninduzun ni, eta nigatik negar ere egin zenduan; nik be'riz, etzaitut bear bezela maite izan, bestela ez nituen o'renbeste pekatu egingo. Barka zaidazu, Jesus.

Jesus: arantzazko koroia ja'ri zizuten buruan nigatik; zigorkadak emanaz zure

gorputza odoldua, zauritua, ezurak agirian zituela gelditu zan; aizkeneko tantoraño odol guztia nigatik isuri zenduan. Barka zaidazu.

Esku ta oñak iltze lodi gogoñaz zulatu zizkitzuten; gurutzean nigatik zintzilik il ziñan. Barka zaidazu, Jauna.

¡Ene Jaungoiko maitea! Nere Aita zera ta barkatuko didazulako uste osoan nago. Barkatuko d dazu, bai, Jesus! nere Anaia, nere lagunik onen-onena zera-ta. Ardi galduen bila zabiltzan Artzai on oñek, zure artaldean pozik artuko nauzu. Madalenari, Pedrori, ta lapuñari ere barkatu ziñion, eta zure erukiaren ateak jo dituzten guztien artean iñortxori ere ez diozu barkamenik ukatu, eta beiñ barkatu ezkerro beñiz, iñori ere ez diozu egindako gaiztakeririk egundaño arpegira erantzun. Oñrelaxe barkatzen dezu, Jauna, Zuk; gure pekatuak kenzera etoñi bait-ziñan. Neri ere oñetxek ematen dit barkatuko didazulako uste osoa. Ustea bakañik ez; ba'dakit, gañera, maite ba-zaitut, nere utsegiteak aztu ta baztartuko dituzula ere. «Maite nauana ez dago

ilik» esan zenuen. Maite zaitut, bada, biotz-
-biotzez, on utsa zeran Jesus, nere Jaungoi-
koa. Nere bańua pozez atsegintzen da zure
eńukiaren ateak zabal-zabalik ikusi-ta, zure
beso maitetsuak ni besarkatzeko irikiak
ikusi-ta. Beraz ¿zer beste gauzik egin nezake
nik, Jauna, zure eńukia beti goratu baizik?
¿Nola ez euki, barkatuko didazulako ustea,
nik bańo ere zuk zerońek neri barkatzeko
gogo geiago euki-ta? Nola ez maite nik, ni
ainbeste maite naun Jaungoiko ona?

Maite zaitut, bai, Jauna. Gauza guztiak
bańo lenago ta geiago maite zaitut; ta maite
zaitudan bańo oraindik geiago maite nai
zinduzket; zeruko Santu, Aingeru ta Sera-
fińak bańo biziago, zure Ama Mariak bańo
ere sutsuago maite nai zinduzket; eta al
balitz, zerońek zere burua maite dezun
neurígabeko maitasunaz nik zu maitatzea
litzake nere nai ta gogorik biziena.

Ama Birjińari

¡O Birjińa Maria, ume pekatarien
gordelekua! Nere pekatuen egiazko

damua iritxi zaidazu, eta nere asmo onak onetsi itzatzu.

Orain zoaz, ume, Apaiz jaunaren oñetara, eta esaizkioztu gogoratzen zaizkitzun egindako pekatu guztiak, lotsaz edo bilduréz batere utzi gabe. Ez ikaratu: ikusiko dezue zeñen bigunki artuko zaitun eta zeñen aundia izango dan zure animara etoriko dan atsegiña.

Aitortzen asi baño len, esazu biotzez:

Nik, pekatari onek, aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti Birjiñari, zoriondun Migel Goi-aingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guziei eta zuri, ene Aita, pekaturik asko egin dedala, gogapen, itz eta egiteetan, nere eruz, nere eruz, nere eru aundiz. Oregatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goi-aingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiei ta zuri, ene Aita, otoitz egio-

zutela nere alde Jaungoiko gure Jau-
nari.

Orain, esan lendabizi:

Aguí, Maria, guztiz garbia.

Apaizak erantzungo dizu: *Pekatu gabe
sortua.*

Esan gero:

*Ilabete (edo astebete, edo daná dala) da
azkena aitortu nintzala, eta ez nuan ezer
ez lotsaz, ez azturik, aitortu gabe utzi.*

Askespena (Asoluzioa) artu nuan.

Geroztik: Lenengo aginduan...

Bigárenean...

Eta onela lenengo agindutik asi ta esan
zeroék egin dituzun utsegite ta pekatu
guztiak. Ez egon, asko bezela, aitorlearen
galderaen zai.

Onela egiñaz, érezago ta lenago bukatu-
ko dezu, ta zuk esan ondoren, aitorleak
beste galderaren bat egiten ba-dizu, eran-
tzun apalki, baño garbi.

Entzun gero berak emango dizkitzun
erakuste (konseju) onak, eta gogoan artu;

eta azkenik, askespena (asoluzioa) ematera
dijoakizunean, esan biotz-biotzez: |

JESUKRISTO nere Jaun, Jaungoiko ta
gizon egiazko, nere egile ta salba-
tzale ori zerana zeralako ta gauza
guztiak baño maiteago zaitudalako,
damu det biotz-biotzez. damu det Zu
naigabetua: asmo sendoa artzen det
ez geiago pekaturik egiteko eta peka-
turako bide guztiak utzi, aitortu ta
oben-nekea betetzeko. Amen.

Aitortu ondoren

Zure pekatu guztiak barkatuak daude,
Jaungoikoa adiskidetu zaizu, Ama Birjiña
maitasunez begira daukazu, zeruko ain-
geruak pozez daude, zure Aingeru zaitza-
leak bere egopean estaltzen zaitu; inper-
nuko deabruak, beñiz, oñuka inpernuko
zulora sartu dira. Zerua zabal-zabalik dau-
kazu. ¡Bai zorionekoa zerala orain!

Aitortu-ondoren

Jaunari eskerak emateko otoitza

O NERE Jaungoiko maitea: barkatu didazulako eskerak ematen dizkitzut. ¡Bai ona zerala! ¡Zeñen maite zaitudan, ene Jesus! Beti maite izan nai zaitut, eta gaurtik aurrera zintzo-zintzoa izango naiz; arestian aitortu dedan pekaturik ez det geiago egingo, Jauna. Batez ere, pekatu ura... (esan zein pekatu), beste guztiak baño aundigoa zalako, geiagoren-geiago ez egiteko erabaki sendoa artzen det. Orelaxe nai det.

Ene Jaungoikoa: beteko det zure laguntzarekin nere erabaki au. Maria, nere Ama guztiz ona: zuk ere lagundu idazu. Nere Aingeru-zaitzailea: nere ustea zugan jartzen det; zaitu nazazu.

Oben-neke edo penitentziz apaizak eman didan otoitza, zuri eskeintzen dizut, Jauna. Barkatu dizkidatzun pekatuak oso-osorik garbitu ta aztu ditzatzun, zintzo-zintzo ta aítetaz esango det otoitz ori.

Orain bete zazu apaizak eman dizun oben-neke edo penitentzia.

Ume maitea: geldi zaite oraindik une batzuetan Sagrario-auíean. Apaizak esan dizkitzun itzak gogora ekaíri eta geldiro ausnartu itzatzu. Erabaki ondo-ondo, artutako asmoak betetzeko nola eratuko zeran.

Elizatik irten baño len, esan pekatari eírukaírien alde *Aita Cúrea* ta *Agur Maria*.





JAUNARTZEA

GORPUTZAK bezin bearezkoa du animak ere bere janaria, indartsu ta osasunez iraungo badu.

Janaria alde batera utzi ezkerro, gorputzeko indańak gutxitu egiten dira, ta auleriak laister dakar bere ondoren gaitza, eta luzaro bańo len naitanaiez gorputza iltzera dator. Ori bera gertatzen da animarekin ere.

Oregatik esaten digu Jesusek: «Nere Aragia zińez janaria da, ta nere Odola zińez edaria». «Au da zerutik jetxitako Ogia: au jaten duana, ez da ilko».

Bere burua jaten eman nai digu: «Nere Aragia jaten duanak eta nere Odola edaten duanak, betiko bizia berekin dauka ta azken egunean nik berpiztuko det».

Bańa Jesusen dei maitetsuari entzungor

egiten dionak, goguan bitza beste itz auek:
«Egi-egiz dizutet: Gizonaren Semearen
Aragia jaten ez ba-dezute, ez dezute izan-
go bañuan bizirik».

Ez, bada, aitzakirik jañi; jaunartu sañi-
tan, ume. Pekatu aundietatik alde egizu, ta
beste gabe jaunartzeko gertu zaude.

Alaz ere, jaunartu-auñetik pekatu txikien
erdoya kentzea ongi da, zure bañura dator-
kizun Jaun aundiari zor zaion begirapena-
gatik. Pekatu txikien erdoya kentzeko bi-
dea, maite-damuzko egintza da, ta batez ere
aitortza.

JAUNARTU AUÑEKO OTOITZAK

ERA LABUÑA

GOGORATU ezazu jaunartu baño len *NOR
DAN* zuregana datoñen Jauna.

*Zure Jaun ta Jaungoikoa dezu, Zeru-
-Luren Jabea, zure Egilea, zure Eroslea, zure
Ongilea, ta zure Maitalea...*

Eta esan biotz-biotzez:

Sinispén-egintza

NERE Jaun eta Jaungoiko guztiz Egi-
zalea! Sinisten det orain artzera nuaⁿ
Osti oíretan zure Gorputz, Odol, Go-
go (anima) ta Jaungoikotasun ber-
-bera ematen dizkidazula. Sinisten
det Zeroírek ala esan zenuelako, ta
ori aitortzeaíren, milá ta milaka aldiz
emango nuke nere bizia.

Zertara datoíren.

Zuri esku-betez mesedeak ekar-
tzera, zure zoriona emen luíean
egitera, gero zeruan ere zoriondu
zaitzan.

Itxaropen-egintza

JAUNGOIKO zintzoa: Zuk esan zenuen
Zugan itxaropena jartzen duenik ez
dala galduko. Zure agindu zintzoan,
bada, daukat nere uste osoa; ba'da-

kit orain luéan ondo artzen ba-zai-
tut, gero zeruan Zurekin bat egiteko
zoriona emango didazula.

Zergatik datoén.

Zuri dizun maitetasunagatik dator,
ez ortan Berak ezer irabaziko duala-
koan; zure onak dakar zure biotzera,
ez bere irabaziak.

Maitetasun-egintza

JESUS maitagaía: nigatik gurutzean
bizia emanaz gañera, zure Aragi gar-
biz ni indartzera zatozkit. Maite zai-
tut biotz, gogo ta indar guziaz. Aén,
Jauna, indazu zure maitetasunean
bizi ta iltzeko zoriona.

Norengana datoén.

Zure biotzera dator, pekataria;
ainbestetan pekatu laíz loitu dezun
zure gogo edo animara dator. Bere

etsaia izan zera zu, ta oía non dator-
kizun, zure gaiztakeriak aztuta, adiz-
kidetasuneko laztan gozoa beíro
zuri ematera.


Damuzko-egintza

E_{NE} Jaun aundia: zure aunditasu-
naren auíean nere ezereztasuna eza-
gutu-ta, biotzez damuturik auspez-
ten natzaizu. Nola eldu ninteke ni
Zu artzera, ainbeste aldiz eta ain
gogorki naigabetu ba-zaitut? Ez, ez
naiz ni ontasun aundi oíren diña; ba-
ñan ala nai dezun ezkerro, egin bedi
Zuk nai dezuna.

Meza-laguntzaleak apaizaren *Domine
non sum dignus*'ekin batean txintxaía
jotzen duenean, esan zuk ere iru aldiz:

Jauna, ez naiz Zu nere etxean sar-
tzeko diña, baña itz bakar bat esazu
ta nere anima sendatuko da.

Gero, itz auek ezpañetan dituzula, zoaz begirune ta itzal aundiz jaunartzera, mutila ba-zera besoak gurutzatuta, eta nexka ba-zera eskuak bilduta, eta ez asko bezela eskuak sakelean (patrikaran) dituztela, bazter guztietara begira.



JAUNARTU ONDORENGO OTOITZAK

Zure etxean sartzean jaun aundi bateri egiten diozun añako aéra ona bederen egingo al diozu baldinbetan jaun guztien Jaunari.

Otoitz eta agintzak

Jauna gurtzeko.

JESUS nere zoriona: Aritu ta zoraturik nago nigana etoñiaz egin didazun mesedeaz, eta eman didazun ondasunaz. Zeruko aingeru ta santuekin batean, zure aúrean auspezturik, zure maitetasun eta eúkia aintzatu, gurtu ta goratu nai ditut.

Eskeñak emateko.

JAUNGOIKO Ona: Begiratu diozu nere ezereztasunari. Gaxo nengoen eta Zuk indartu nauzu; beartsu arkitzen nintzan eta zure ondasunez ementxe

bete nauzu. ¿Zer emango dizut, ene Jaungoiko maite oñi, zure eskuetatik artu ditudan ondasunen ordañez?

Zere burua eskeintzeko.

NERE Jaun eta Jabea: naizen eta daukadan guzi-guzia zuri damatzut beriz ere; guzi-guzia len Zeroñek emana det.

Nere biotza nai dezu... Artu betiko, Jauna.

Nere adimen, oroimen, gorputz eta anima, orobat zureak dituzu.

Naikoa det zure maitetasuna, ta ainbestez txit aberatsa naiz.

Esker edo mesede beriak eskatzeko.

BAÑO ¿zer dezaket nik, Jauna, zure indar ta zure laguntzarik gabe?

¿Ene Jaun Maitea! Zure Gorputz-Odol agurgañiak jan-edaritzat artu ditudan ezkerro, añen eskatzen dizut, Andre Maria zure Ama bitarteko

jañirik, ezañi dizazkidazula biotzean argitasuna ta indaía ta pekatuarenganako belduía, ta, etsaiaren ekiñaldi guztiak autsirik, Zurekin beti batizateko gogo sendoa.

Jesus, nere gurasoentzat ere eskatzen dizut; lagundu zaiezu; onetsi itzatzu beren lanak. Batez ere, Jau-na, gero an zeruan guztiok beti-betiko elkaturik egon gaitezen, emaiestu emen luíean kristau on eta zintzoak izateko laguntza.

**Loyola'tar Iñazio Deunak
esan oi zuan Otoitza**

Kristoren anima, santu nazazu.

Kristoren gorputza, salba nazazu.

Kristoren odola, ase nazazu.

Kristoren saietsetako ura, garbi nazazu.

Kristoren nekaldia, indartu nazazu.

O Jesus ona, entzun zaidazu.

Zure zaurien bañuan gorde nazazu.
Ez utzi neri Zugandik alde egiten.
Etsai gaiztoengandik gorde nazazu.
Eriotz-aldian dei nazazu.


Eta Zugana joateko, agindu zaidazu.
Zure santuekin batean, Betikotasun
osoan Zu goratu zaitzadan. Alaxe.

(300 eguneko barkapenak, 7 urtekoa egunean bein,
junartu ondoren, esanda, Barkapen osoa ilean bein
aitortu, jaunartu ta Eliz bat ikustatu ta bertan Aita
Santuaren alde eskatuta).

Jesus Gurutziltzatuari

(Bere irudi aurrean esan bear da).

¡O Jesus on eta
guztiz gozoa! Aus-
pez belaunikaturik
naukazu emen zure
aurrean; eta nere ani-
maren berotasunik
aundienaz, bein eta
beriz eskatzen di-
zut, piztu dezazula nere biotzean, si-
nismen, itxaropen eta maitetasun bizi



-bizia, ta nere pekatuen egiazko damua, ta beñiz olakorik ez egiteko erabaki sendoa, nere biotzeko samintasun eta eñuki aundienaz zure bost zauriak gogoratzen ditudan artean, begien aurrean eukirik, o Jesus ona, Dabid igarleak Zuretzat alde aurretik esan zuana: «Zulatu dituzte nere esku-oñak; eta zenbatu nere ezur guztiak».

(Barkapen osoa jaunartu ta Aita Santuaren alde zer-bait otoi egin-da; Garbitokiko animentzako ona).

Andre Mariari

ITZULI itzazu nigana zure begiak, Maria Birjin txit goragaña, Zure begien atsegín-poza orain egiñik nagotta. Eskatu nere alde zure Seme maite-maiteari, bere Gorputz-Odol gozoak jan-edaritarako eman dizkit-eta; eskeñi zure irabaziak nere bear aundiaren orde. Eskeñak eman, bai, nere izenean, eta eskatu: ez dedila nere

biotz-baítutik joan, nere gorputz-animak bere esker mesedez lendauítetik bete-bete arte. Olaxe.

Eriotz etsipena

(Eriotz-garairako barkapen osoa gaurtik irabazi dezakezu, kristaua. Une laíi artan, erdi kordegabetua zaudela, agian barkapen oso ori irabazteko ez zera gauza izango. Irabazi zazu bertatik, gauí bertan. *Naikoa dezu ortarako*, aitortu, jaunartu ta ondoren jartzen dan otoitza biotz-biotzez esatea).

(Pio X'k 1904'ko Epailaren 9'an).

Otoitza

NERE Jaun eta Jaungoikoa: Oraintxetik gogo onez artzen det zure eskutik, Zuk egunen batean neretzat gogozko izango dezun edozein eriotz, bere laíritasun, beldur eta oñazeekin

Oarpenak:


1. — Barkapen osoa, bein bakaíik bizian, irabazten da eriotz-garairako.

2. — Ala ere askoz obe da askotan onela aitortu, jaunartu ta otoitza ori esatea, ziur irabazteko).



MEZA DEUNA

UMETXOAK BAKARKA MEZA
ENTZUTEKO ERA
(IRLANDERATIK ARTUA)



CONFITEOR

Nere Jaungoikoa! Damu ditut nere pe-
katu guztiak.

Ona izan nai det orain.

Ondo entzun nai det Meza auxe.

Lagun zakizkit, a'én.

Nere Ama maite Maria, otoitz egin eza-
zu nere alde.



GLORIA IN EXCELSIS DEO

Jauna, éruki zakizkigu.

Jesukristo, éruki zakizkigu.

Jauna, éruki zakizkigu.

Aintza Aitari, aintza Semeari eta aintza
Espiritu Santuari.

O! Nork goratu al zinduzkean, nere Jaun
aundi ori, aingeruak zeruan goratzen zai-
tuzten bezela!



EPISTOLA

Nere Jaun maitea!

Artzazu zuretzat ni naizen guztia.

Egin nazazu, a'eren, zure aurtxo.

Nere Jaungoiko Jesus, gauza guztiak ba-
ño maiteago zaitut nik Zu.

Lagun zakizkit, Zu gero ta maiteago
izaten.



EBANGELIOA

Nere Jaungoikoa: ba'dakit, nere bizi guztian ona ba-naiz, il-da gero Zuk zoriontsu egingo nauzula.

Indazu beti Zuri atsegin emateko eran bizi izateko Zure laguntza.

Ez dezadala, a'ren, nik bein ere egin edo esan ezer, Zuk, nere Jaungoiko maite o'rek nai ez dezunik.



SANCTUS

Santua, Donea, Donea zera Zu, gure
Jaun aundi ori. Ez da iñor Zu bezain do-
nerik.

Egin nazazu ni ere, Zu bezela, egunean
baño zuzenago ta doneago.

Nere Ama Maria: otoitz egizu nere alde,
ni ume on-ona izan nadin.



MEZ-ERDIA

Nere Jaun eta nere Jaungoikoa!

Nere Jesus maitea! Bedeinkatu ta onetsi itzazu nere aita, nere ama ta nik maite ditudan guztiak.

Lagun zaiguzu guztioi Zu maite izaten eta Zuri atsegin ematen.

Eskeñak, Jauna, neri eman didazun guzti-guztiagatik.

Nere Jaungoikoa ta nere dana!



MEZERDI-ONDOREN

Jesus maitea! Aldarean zaude Zu orain.
Ikusi nai zinduzket ortxe, aingeruak
ikusten zaituzten bezela.

Nere Aingeru maitea: otoitz egizu nere
alde, nik Jesus maite-maite izan dezadan.

Zuk egunen batean eramango nauzu
zerura, ta antxe biziko naiz beti Jesus ori
ikusten ta maite izaten.



IĒN MEMENTOA

Jesus erukitsua! Eruki zakizkie Garbite-
giko anima gaxoai, eta atera itzazu len-
bailen neke-naigabe aietatik.

Zeruan Zurekin egoteko zaleturik daude:
Zurekin eta gure Ama maite Maria'rekin
eta aingeru ta Santu guztiakin.

Jaun maitagaíi Jesus; emaiezu anima
gaxo aiei betiko atsedena.



AITAGUREA

«Aita gurea, zeruetan zaudena:
santifikatua izan bedi zure izena;
betor gugana zure éreinua;
egin bedi zure borondatea, zeruan be-
zela luéan ere.

Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia;
eta barkagizkiguzu gure zoák, guk geren
zordunai barkatzen diegun bezela;
eta ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen;
baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Amen».
Nere Jaungoikoa; gorde gaitzazu gaitzik
gabe egun onetan.

Ez dezagula, áren, bein ere pekaturik
egin.

Lagun zaiguzu guztioi, pakean biziizaten.



APAIZAREN JAUNARTZEA

Jaun aundi ori, ba'dakit emen gurekin zaudela. Nik maite-maite zaitut. Damu ditut nere pekatu guzti-guztiak.

¡Jesus maitea! Eman zenitzadake Zuk neri gauza guztiak; baña, nere Jaungoiko Jesus, Zu zaitut nik gauza guztiak baño maiteago. Eman zakizkit Zerori. Atozkit eta egin nazazu garbi ta done.

UMEEN GOGOZKO JAUNARTZEA

Jesus maitea: garbi ezazkidazu nere pe-
katu guztiak.

Jesus, atoz; atozkit Jesus.

Oh, zeñen maite zaitudan!

Atoz gaur nere biotz gaxo onetara.

Erakutsi zaidazu Zu maite izaten eta
Zuri otoitz-egiten.

Atozkit bai, Jesus.

Mila bider ongi etoña!



AZKENEKO OTOITZAK

Nere Jaungoiko maitea, eskerak Zuri,
Meza Done au entzutera ekañi nauzulako.

Meza Done onek lagun dezaidala ume
ona izaten.

Eskeñak nere Jaun aundi oñi, nigana etoñi zeralako.

Ez zaitzadala nik iñoiz ere utzi Zu pekatuagatik.

Zabiltza beti nerekin nere bizitza guztian, eta batez ere eriotzako orduan.

Andre Maria Ama Birjiña, otoitz egizu nere alde.



ONESPENA

Bedeinka gaitzala guztiok Jaungoikoak.

Nere Jaun maitea: eskeñak Zuri, nere alde egin dezun guztiagatik. Egingo a -det nik ere beti alegin guztia Zuri atsegin emateko eta zure seme on izateko.

Nere Aingeru maitea: zaude beti nere ondoan, nik bein ere pekaturik egin ez dezadan.



AZKENEKO EBANGELIOA

«Agur, Maria, graziaz betea:
Jauna da zurekin;
bedeinkatua zera zu andre guztien artean;
eta kedeinkatua da zure sabeleko frutu
Jesus.

Santa Maria, Jaungoikoaren Ama:
éregutu ezazu gu pekatorioen alde, orain
eta gure eriotzako orduan. Amen».

(Iru aldiz).

«Agur, Éregiña, Ama érukioña: gure bizi,
gozo ta itxaropena, agur!

Zure deiez gaude Eba'ren ume erbeste-
tuok;

zuri aiezka, antsiz ta nega'rez nega'-e'ri
onetan .

Ea, bada: itzuli itzazu gure bitarteko on
o'rek, itzuli gunana zure begi e'rukitsu oiek;
eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu
Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori.

O Biozpera!

O E'rukior!

O Maria Birjin gozoa!

Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren
Ama Done o'rek.

Jesukristo gure Jaunaren aginduak ira-
baz ditzagun. Amen».



UMETXOAK TALDEKA MEZA

ENTZUTEKO ERA

Meza-auřetik

Batek. — Jesukristo il zan garaian, antxe gurutzearen oñean arkitu izan bagiña ¡bai zintzo egongo giñala! Bada Meza Doneak Jesusen gurutzeko eriotza gogorazten ta beřitzen digu. Zintzo-zintzo eta ařetaz entzun dezagun beraz.

Guztiak. — O Jesus: gure anima pekatutik askatu, eta zure maitetasunez betetzeařen, nekaldia igaro eta gurutzean il nai izan zenduan gure Jesus! Kalbario-mendian eta gurutzearen ondoan Ama Birjiñak eta San Juanek zeukaten maitetasun eta eřukia bera jaři ezazu orain gure biotzean.

Apaiza aldarera igotzean

Batek. — Entzutera goazen Meza au Jaungoikoari eskeñi deiogun.

Guztiak. — Nere Jaungoiko maitea: Egin dizkidazun ondasun guztiakatik eta nere pekatuen barkapena iristearen artu ezazu eskeintzen dizudan Meza Done au. Bizirik dauden eta il diran nere aide, ongile eta adizkideen alde eskeintzen dizut gañera. Eskeintzen dizut baita, zure Seme Jesus eñi ontan ezagutuago ta maitatuagoa izan dedin.

Apaizak Meza asten duan garaian

Batek. - Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak. — Amen.

Batek. — Jaungoikoaren aldarera ureratu-ko naiz.

Guztiak. — Nere gaztetasuna pozez

betetzen duan Jaungoikoarengana.

Batek. — Jauna, zure umeak erukia eskatzen dizute.

Guztiak. — Ez nazazu, Jauna, baztertu nere pekatuakgatik. Betikotasun guztian zure ondotik aldendua bizi izateko zoritxar ikaragarriak ez nazalajo, aien.

Batek. — Gure laguntza Jaunaren izenean dago.

Guztiak — Zeru ta luñak egin zituan Jaunaren izenean.

Batek. — Nik, pekatari onek, aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai ta beste Done guztiai, pekaturik asko egin dedala gogapen, itz eta egiteetan,

Guztiak. — Nere eruz, nere eruz, nere eru aundiz. Oregatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zo-

riondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai ta beste Done guztiai, otoitz egiotela nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

Batek. — Jaungoiko alguztiduna erukitu bekigu, ta obenak barkatu-ta betiko bizi-tzara eraman gaitzala.

Guztiak. — Alaxe izan bedi.

Batek. — Jauna, entzun zazu nere eskaria.

Guztiak. — Eta igo bedi zugana nere deadaña.

Introitoan

Batek. — Jauna, iraun dezagula gaurko egunean garbi.

Guztiak. — Or aldarean santu batzuen ezurak daude eta apaizak ezur oiei mun egiten die: Jesusen ize-nean, bada, eta Done oien irabazkiakgatik, gaur garbi iraun dezagula eskatzen dizugu, Jauna.

